



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2019.10.29

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Nerea Letamendia Beloso
Begoña Tolosa Mendia
Patxi Amantegi Zubiria
Jose M^a Villanueva Telleria

Ez bertaratutako zinegotzia:
Xabier Balerdi Tolosa

Jarduneko idazkaria:
Karmele Contreras Goikoetxea

Jarduneko Kontuhartzailea:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretzi urriaren hogeita bederatzian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. 2019ko urriaren 22ko bilkurako akta onartzea.
2. Olarrain Auzo Elkartearen sarbidearen irisgarritasuna bermatzeko obren kitapena.
3. Parke mikroinformatikoaren gaineko proposamena.
4. 2919/1699 Dekretuaren berri ematea (2019/53 faktura-zerrenda).
5. Dekretu hauen berri ematea: 2019ko urriaren 18tik 24ra (dk2019/1675-2019/1.730).

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko urriaren 22an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2.- OLARRAIN AUZO ELKARTEAREN IRISGARRITASUNA BERMATZEKO OBREN KITAPENA.

AURREKARIAK

2019ko Apirilaren 8an, zuinketa egiaztatzeko akta sinatu zen, horrela, Olarraingo auzo elkarteko irisgarritasuna bermatzeko lanei hasiera eman zitzaien.



TOLOSAKO
UDALA

Lanak hasi aurretik, ohizko prozedurari lotutako agiriez gain Tolosako Udalak Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF)en esku 90.000€ko bermea jarri behar izan zuen. Aipatutako agiriaren helburua ondorengo izan zen:...`*Garantizar el buen fin del acceso peatonal a edificio social existente del P.K. 595/580 al P.k. 595/612, lado derecho, de la línea Madrid-Hendaia, en el término municipal de Tolosa (Gipuzkoa).*`

TEKNIKOAREN TXOSTENA

2019ko uztailean, obra zuzendariak, kontratistarekin neurketak adostu ondoren, kitapena aurkeztu zuen. Bertan, esleitutako aurrekontua baino 4.583,26€ gehiagoko kostua jaso zen.

Kitapeneko kopurua BEZa barne 70.846,26€koa izan zen, onartu zen esleitutako kopurua, berriz, 66.263,00€koa. Bi kopuruen arteko aldea proiektuan jada zeuden obra unitateen neurketa gehikuntzen ondorioa dira. Segurtasun arrazoiak zirela medio, auzo elkarteko sarrerako barandila ordezkatzeari adostu zen. Esleitutako lanen helburu nagusia auzo elkarteari irisgarritasuna bermatzeko arrapala eraikitzea zen. Elkarteko kideen eskaerei erantzuna eman nahiean (eta beharrezkoa zelako) proiektuan jaso zen arrapala bukaeran zegoen lurra konpondu eta hezetasun arazoak konpontzea. Beharrak eta eskariak gehiago izan ziren arren, proiektuaren eremua eta egin beharrak mugatu ziren. Proiektuko eremuaren barnean baina aurreikusitako lanetatik at arrapala bukaera ondorengo barandilak zeuden. Horiek ez zituzten ezinbestekoak diren segurtasun neurriak betetzen, hori zela eta esleitutako lanetan jasotako barandila berak luzatu ziren hezetasunaren aurkako tratamendua eman zen plataforman. Obra bukaerako agiri eta argazkietan aipatutakoa egiaztatu daiteke.

Aurrekoa azaltzeko obra zuzendariak eginiko txostenean proiektuko eta esleipenaren arteko unitatez-unitateko konparatiboa jaso zen. Txostenean ikus daiteke aldea barandilaren neurketan dagoela.

Neurketa handitzeak %6,92ko aurrekontuaren gehikuntza ekarri zuen.

9/2017 Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 242.4 artikularen arabera:

No obstante, no tendrán la consideración de modificaciones:

i. El exceso de mediciones, entendiendo por tal, la variación que durante la correcta ejecución de la obra se produzca exclusivamente en el número de unidades realmente ejecutadas sobre las previstas en las mediciones del proyecto, siempre que en global no representen un incremento del gasto superior al 10 por ciento del precio del contrato inicial. Dicho exceso de mediciones será recogido en la certificación final de la obra.

Beraz, obran neurketa aldaketak kontratuaren prezioaren %10ren azpitik daudenez obra bukaerako kitapenean adierazita nahikoa dela uste dut.



TOLOSAKO
UDALA

Udalak egindako eskaerak obra epemuga luzatu beharra ekarri zuen.

Abuztuan obra jasotzeko akta sinatu aurretik, obra zuzendariak obra bukaerako agiriak prestatu zituen, bertan, ondorengo agiriak bildu zituen:

- Aginduen liburua.
- Obra amaiera: Obra bukaerako ziurtagiria
 Epemugaren inguruko txostena
 Kitapena +azalpen txostena
 Argazkiak
 Kalitatea bermatzeko agiriak
 Planoak

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

Lehena.- Obraren kitapena onartzea eta dagokion 70.846,26€ko ordainketa egitea.

Bigarrena.- Tolosako Udalak ADIF enpresari beraien alde jarritako 90.000€ko bermea itzultzeko eskatzea.

Hirugarrena.- Erabaki hauen berri ematea Construcciones Zubieder, S.L enpresari, ADIF enpresari, eta Ogasun eta Fidantza Administrazio sailari.

3. PARKE MIKROINFORMATIKOAREN GAINEKO PROPOSAMENA

Udal honek gaur egun Legegintzaldirako Kudeaketa plana lantzen ari da, eta Antolakuntza Esparruari dagokion helburu estrategikoetako bat, **Udal eraginkor eta erabakitzailea lortzea** da. Helburu hori lortzeko ekintzetako bat, berriz, **Udalaren modernizatzeko teknologikoaren Plan Estrategikoa bat egitea da**. Plan honek hainbat jarduera-multzo hartzen ditu barne, hala nola diagnosis egitea, egungo ekipamendu teknologikoaren eguneratze politika bat erabakitzea, eta baita ere, ondorengo hau:

“Udal guztiak azpiegitura informatiko sistema homogeen eta estandarizatu batekin lan egitea, eta efizientzia, azkartasuna eta barruko zein kanpoko administrazioekiko operatibitatea eta komunikazio egokia bermatuko duena”



2. Azpiegitura informatikoaren diagnostikoa

2.1. IZFERi eskatutako txostena

Onartzean dagoen Udalaren modernizazio teknologikoaren Plan Estrategikoan zehaztutakoari jarraituz, gaur egungo azpiegitura informatikoaren gaineko diagnostikoa eskatu zion IZFERi. Erakunde honek, 2019ko urriaren 16an, diagnostikoaren berri mikro informatikoaren inguruko diagnostiko bat egin du, hauxe esanez:

“Se observa en el informe remitido por el ayuntamiento una amplia variedad de versiones de Sistemas Operativos de escritorio, tanto Windows como Linux. La situación actual según dicho informe es la siguiente:

S.O.	VERSION	Fin de soporte estándar	Fin del soporte extendido	EQUIPOS
WINDOWS	XP		08/04/2014	39
	7	13/01/2015	14/01/2020	7
	10			10
UBUNTU	12.04	15/02/2017	15/02/2019	4
	14.04 LTS	15/02/2019	15/02/2022	17
	16.04 LTS	16/02/2021	15/02/2024	69
	18.04 LTS	16/02/2023	15/02/2026	

Será decisión de la propia institución, siempre que los programas informáticos lo permitan, determinar si el parque informático del ayuntamiento debe estar basado en Ubuntu (software libre) o en Windows (software propietario). En cualquier caso, entendemos necesario un ejercicio de racionalización y normalización de dicho parque, trabajo que redundará en el futuro en una menor complejidad del soporte necesario por parte del propio ayuntamiento y contribuirá a crear sinergias entre los usuarios.

Las ventajas del software libre (Ubuntu) contra propietario (Windows) se podrían resumir en:

- Sin coste de licencia (soporte no incluido, su coste depende de la distribución elegida).
- Mayor libertad de gestión del sistema por parte de los administradores,
- Mayor protección a ataques informáticos (debido al aislamiento intrínseco del núcleo del sistema).
- Menores requisitos de hardware

Las ventajas del software propietario (Windows), en cambio, serían las siguientes.

- Soporte incluido en el precio de la licencia.
- Asistencia garantizada hasta el fin de ciclo de vida de la versión del S.O.
- Mayor facilidad de uso por parte de los usuarios finales.
- Mayor compatibilidad con aplicaciones de terceros.



TOLOSAKO
UDALA

De la misma manera se debe optar entre suites ofimáticas libres (Libreoffice o similar) o propietarias (Microsoft Office). A día de hoy cualquiera de las dos soluciones provee las herramientas necesarias para el trabajo habitual con hojas de cálculo, proceso de datos, presentaciones gráficas, etc. Es cierto sin embargo que la gestión de la suite y la compartición de los documentos, por la propia tasa de implantación del software propietario puede llegar a ser más complicada y requiere de una formación para los usuarios en cuanto a los distintos tipos de archivos y las compatibilidades entre ellos. Por otro lado, optar por una solución propietaria, como Microsoft Office, además de aumentar la facilidad de uso, puede incluir servicios adicionales como trabajo en grupo (colaboración), soporte técnico oficial, etc.

Cabe destacar el caso especial de las bases de datos que el ayuntamiento pueda estar empleando en la actualidad y que provengan de una solución Microsoft Access. Para este caso podría no haber una solución equivalente y plenamente funcional en software libre, por lo que, si se requiere seguir utilizando dichas bases de datos, la adquisición de las licencias necesarias para los usuarios que deban hacer uso de ellas resulta imprescindible.”

2.2. Barneko egoeraren azalpen laburtua

Era berean, hauxe da hainbat departamentutako buruek edo informatika buruak berak adierazitako egoera:

- “Kontuhartzailtza Departamentuan bereziki garrantzitsuak diren dokumentuak lantzen dira: udal aurrekontua eta bere aldaketak (Gipuzkoako Foru Ogasunak garatutako programekin, Windows eta Microsoft Office, -Excel- erabiltzen dutenak), Ordenantza Fiskalak, Gizarte Segurantzari egiten zaio datuen lagapena (Excel behar du), Aurrekontuko Langileen plantilla..... Azkenik, hainbat administrazioekin egin beharreko lotune informatiko egokiak Internet Explorer behar du (Gizarte Segurantzak, Funtzio Publikoko Ministerioa, ISPA sistemak behar duen informazioaren igorketa...).

Egoera honek funtzionamenduko arazo larriak sortarazi ditu aipaturiko Departamentuan. Alde batetik, eragiketa konplexuen aurrean segurtasun eza zegoela ikusita (eragiketa konplexuak exeletik calc-era pasatu behar zirenean, edo calc formatuan egin ondoren excel formatura egokitu behar ziren, inolako segurtasunik gabe), kontrol urruneko irtenbideak jarri ziren, baino haien erabilera ez da eraginkorra, denbora gehiago behar duelako. Bestetik, beste administrazioek erabiltzen ez dituzten sistemak eta programak erabiltzeak lanaren etenaldi jarraituak sortzen ditu, eta denbora asko galtzen da, eraginkortasunaren kalterako.”

- Hirigintzan ere, departamendu buruak proposatzen du Autocad Map 3D mantentzea eta beste sareko 3 lizentzi eskatzea. Hauek lizentzi-zerbitzari dedikatu batean jarri eta aldi berean 3 erabiltzaile gai izango ziren programa ibiltzeko. Soluzio honek, Presto programak bezala, Windows 10 behar du ekipo guztietan, eta programa ekipo bakoitzean egikaritzen denez, ezin dira ordenadore normalak



- izan, "estaciones de trabajo" baizik. Azkenik, Presto-tik ezin da "Libreoffice Calc"era inportatu, nahitaez, "Microsoft Office Excel" izan behar omen du.
- Giza Baliabideetako Departamentuan ere "Libreoffice Calc" programak sortarazitako konpatibilitate arazoak sortzen ditu Meta4 nomina programarekin, jarraitutako geldialdiak eta lanaren etenaldiak eraginez.
 - Musika eskolan ere, "Finale" programa Windows sistema eragilearekin funtzionatzen du bakarrik, eta ekipo hauetan soinuaren kalitatea garrantzitsua izango denez, ezin dugu sistemak birtualizatu.
 - Udaltzaingoan ere Munipol aplikazioaren en dependentzia dago oraindik. Laster seguruenik IZFEk berariaz sortutako aplikazio berriarekin ibiliko dira, eta aukera egongo da ekipo guztiak aukeran sistema libreria edo Windows sistemara migratzeko, ordea, irratiko ekipoa eta kaboena izan ezik. Lehenengoa ongi aztertu beharko da eta litekeena da bi ekipo desberdinetan banatu beharra bere funtzioak, eta bigarrena Windows 10 beharko du.
 - Azkenik, Udal artxiboak programa eraginkorra behar du, informazioa ahalik eta era onenean kudeatua izan dadin, eta udal sail guztiek espedienteak bilatzeko sarbidea izan dezaten. Era horretan, Knosys programa aukeratu zuen udal honek artxiboaren kudeaketarako.

Proposatuko den irtenbidearekin, parke informatikoa optimizatu nahi da bi helburu nagusi lortzearen: alde batetik, udal langileen lana eraginkorra izatea, lanaren etenaldiak ahalik eta gehien ekidinez, etenaldi horiek sortzen duten gastua aurreztuz. Bestetik, gainontzeko administrazioekin (Eusko Jaurlaritzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Gizarte Segurantzarekin...) harremanak erraztea, informazioaren trukea eta igorpena era azkarrean garatuz.

3. Ondorioak

3.1. Windows sistema eragilea

Honela, behin parke mikroinformatikoaren gainean IZFEz adierazitakoa aztertu eta gero, eta ikusirik gaur egungo egoerak udal barruko zein beste administrazioekiko interoperabilitatea zein komunikazio egokia ez dela hainbat kasutan bermatzen, eta era berean hirugarrenen aplikazioekin konpatibilitate arazoak daudela, ondorioztatzen da Windows sistema erabiltzeko aukera gehiago egokitzen dela goian aipatu den Legegintzaldiko Plan estrategikoan islatutako helburu eta ekintzekin, alegia, "Udal guztiak azpiegitura informatiko sistema homogeen eta estandarizatu batekin lan egitea, eta efizientzia, azkartasuna eta barruko zein kanpoko administrazioekiko interoperabilitatea eta komunikazio egokia bermatuko duena".

3.2. Microsoft office suite ofimatikoa

Era berean, eta pakete ofimatikoari dagokionez, Microsoft Officeren aldeko apustua egiten da. Kasu guztietan, 40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubidea arautzen duenak, bere 38.5 artikuluan jasotakoa (5. *La publicación en las sedes electrónicas de informaciones, servicios y transacciones respetará los principios de accesibilidad y uso de acuerdo con*



TOLOSAKO
UDALA

las normas establecidas al respecto, estándares abiertos y, en su caso, aquellos otros que sean de uso generalizado por los ciudadanos), eta 4/2010 Errege Dekretuak, urtarrilaren 8koak, Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren esparruan arautzen duenak bere 11. artikuluan xedatzen dutena bermatu behar da, hain zuzen. Zehazki, 11. artikuluko honek bere a) atalean ondoko hau xedatzen du:

1. Las Administraciones públicas usarán estándares abiertos, así como, en su caso y de forma complementaria, estándares que sean de uso generalizado por los ciudadanos, al objeto de garantizar la independencia en la elección de alternativas tecnológicas por los ciudadanos y las Administraciones públicas y la adaptabilidad al progreso de la tecnología y, de forma que:

a) Los documentos y servicios de administración electrónica que los órganos o Entidades de Derecho Público emisores pongan a disposición de los ciudadanos o de otras Administraciones públicas se encontrarán, como mínimo, disponibles mediante estándares abiertos.

b) Los documentos, servicios electrónicos y aplicaciones puestos por las Administraciones públicas a disposición de los ciudadanos o de otras Administraciones públicas serán, según corresponda, visualizables, accesibles y funcionalmente operables en condiciones que permitan satisfacer el principio de neutralidad tecnológica y eviten la discriminación a los ciudadanos por razón de su elección tecnológica.

Hori guztia kontuan izanik eta egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

Lehena.- Tolosako udaleko parke mikroinformatikoa bateratzea Windows sistema operatiboaren zein Microsoft Office aukera ofimatikoaren alde eginez. Honela, gaur egun dauden Windows bertsio zahar guztiak eguneratu beharko dira, eta baita ere gaur egun Linux sistema eragilea duten ordenagailuetan Windosen azken bertsioarekin ordezkatzeko urratsak eman beharko dira, hori gauzatzeko giza baliabide zein diru-aurrekontu nahikoa jarritz.

Beraz, helburua eta norabidea argi eduki eta gero, puntu hauek hartu beharko dira kontuan:

- Interbentziorako proiektu plan bat egin beharko da, non zehaztuko diren:
 - proiektuaren faseak (pilotoa barne)
 - Egin beharreko jardueran hurrenkera eta iraupena
 - Egin beharreko interbentzioak on-line edo presentzialki egingo diren.
 - Bete beharreko mugarrien zerrenda
 - Zerbitzuan egon daitezkeen arrisku eta eragin indizeak. Migrazio prozesu guztian ahalik eta eragin txikiena bermatu beharko da zerbitzuan eta ezin aurreikusitako arazoei aurre egiteko akzio plan bat eduki beharko du.
- Instalatu beharreko bertsio eta lizentzien zerrenda osoa zehaztu beharko da, kontuan izanik produktu guztien azkeneko bertsio egonkorra ezarri beharko dela.



TOLOSAKO
UDALA

Ekimen hauek bateragarriak izan beharko dute udaleko zerbitzari aplikazioen eta sareko zerbitzuen azpiegitura berriarekin. Gaur egungo zerbitzarian dauden zerbitzu eta aplikazioen migrazioa eta eguneraketa egin beharko da Hodeia Birtuala azpiegitura berrira.

BIGARRENA.- Erabakia jakinaraztea Infomatika Departamentuari.

4. 2919/1699 DEKRETUAREN BERRI EMATEA (2019/53 FAKTURA-ZERRENDA).

Idazkariak 2019/1699 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Zk.: 2019/1699

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2019ko honako faktura-zerrenda hau:

53 zenbakia duena, 239.378,02 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak ondorengo hau

EBATZI DU:

LENEHIK.- Onartzea ondorengo faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

53 zenbakia duena, 239.378,02 eurokoa.



TOLOSAKO
UDALA

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Tolosan, 2019ko urriaren 21ean

Batzarkideak jakinaren gainean geratu da.

4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO URRIAREN 18TIK 24RA (DK2019/1675-2019/1730).

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2019ko urriaren 18tik 24ra bitartean (DK 2019/1675-2019/1730) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei. Honako hauek dira:

ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
1675	2019	18/10/2019	ENPLEGUA	ORIABURUKO BEHEKO GELA ERRETSERBA. TOLOSALDEA GARATZEN S.A IKT ASTEA 21-25
1676	2019	18/10/2019	ENPLEGUA	TOLOSALDEA GARATZEN S.L HITZARMENA 2.ORDAINKETA
1677	2019	18/10/2019	KONTUHARTZAILETZA	PRORROGA DEL CTO. DE ASISTENCIA EN LA RECAUDACION EJECUTIVA Y EN LA GESTION DE MULTAS
1678	2019	18/10/2019	KIROLAK	2019KO DIRULAGUNTZAK ESKOLA KIROLA
1679	2019	18/10/2019	KULTURA	AZKEN MUGA ELKARTEARENTZAT 2019KO DIRU LAGUNTZA IZENDUNA ONARTZEA
1680	2019	18/10/2019	KONTUHARTZAILETZA	2019KZZG0047 ESPEDIENTEAREN ZATIKAPENA ONARTZEA
1681	2019	18/10/2019	KONTUHARTZAILETZA	2019KZZG0048 ESPEDIENTEAREN ZATIKAPENA ONARTZEA
1682	2019	18/10/2019	KONTUHARTZAILETZA	2019KZZG0049 ESPEDIENTEAREN ZATIKAPENA ONARTZEA
1683	2019	18/10/2019	KONTUHARTZAILETZA	2019KZZG0050 ESPEDIENTEAREN ZATIKAPENA ONARTZEA
1684	2019	18/10/2019	KONTUHARTZAILETZA	2019KZZG0051 ESPEDIENTEAREN ZATIKAPENA ONARTZEA
1685	2019	18/10/2019	KONTUHARTZAILETZA	2019KZZG0052 ESPEDIENTEAREN ZATIKAPENA ONARTZEA
1686	2019	18/10/2019	KONTUHARTZAILETZA	2019KZZG0053 ESPEDIENTEAREN ZATIKAPENA ONARTZEA
1687	2019	18/10/2019	KONTUHARTZAILETZA	2019KZZG0054 ESPEDIENTEAREN ZATIKAPENA ONARTZEA
1688	2019	18/10/2019	KONTUHARTZAILETZA	2019KZZG0055 ESPEDIENTEAREN ZATIKAPENA ONARTZEA



ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
1689	2019	18/10/2019	IDAZKARITZA	ALKATEAK ESKUMENAK ABOKATU ETA DIRU-BILKETAREN KONTRATUAREN LUZAPENA ONARTZEA.
1690	2019	18/10/2019	KULTURA	ZULOAGA TXIKI ATERPEA USTIATZEKO KONTRATUAREN AMAIERA ONDORENGO FIDANTZA ITZULPENA ONARTZEA
1691	2019	18/10/2019	IDAZKARITZA	UZTURRE 7-2B ETXEBIZITZA TASATUAREN SALMENTARAKO GEHIENEZKO PREZIOA JAKINARAZTEA
1692	2019	21/10/2019	FESTAK	LARRAMENDIKO JAIETAN, 2019KO URRIAREN 25ETIK 27RA, BARRAKAK JARTZEKO BAIMENA.
1693	2019	21/10/2019	UDALTZAINGOA	ETXE ABEREEN ORDENANTZAREN ARAU-HAUSTEAGATIK ESPEDIENTE IREKI
1694	2019	21/10/2019	HIRIGINTZA	HERIBIDEAK ERABILTZEAGATIK FIDANTZA ITZULTZEA
1695	2019	21/10/2019	IDAZKARITZA	GARAJE BATEN ESKUALDETZEKO PREZIOA EMATE. O. L. L..
1696	2019	21/10/2019	IDAZKARITZA	GARAJE BAT ESKUALDATZEKO PREZIOA EMATEA. I. A. M.
1697	2019	21/10/2019	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO 7(-2) APARKALEKUAREN ERABILERA ZESIO KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA 2019KO MARTXOAREN 1ETIK AURRERA ETA FIANTZAREN ITZULTZEA EGITEA
1698	2019	21/10/2019	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO 10(-1) APARKALEKUAREN ERABILERA ZESIO KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA ETA FIANTZA ITZULTZEA
1699	2019	21/10/2019	KONTUHARTZAILTZA	ONARTZEA 53 ZENBAKIA DUEN FAKTURAZERRENDAKO FAKTURA GUZTIEN ETA BAKOITZAREN GASTUA ETA ORDAIN DITZATELA AGINTZEA.
1700	2019	21/10/2019	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO 32(-1) APARKALEKUAREN ERABILERA ZESIO KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA ETA FIANTZA ITZULTZEA
1701	2019	21/10/2019	HIRIGINTZA	TOLOSALDEA GARATZENI OBRA BAIMENA EMATEA
1702	2019	22/10/2019	IDAZKARITZA	2019ERRE0012 ESPEDIENTEAN ONARTUTAKO KALTEEN FRANKIZIA ZURICH ASEGURU ETXEARI ORDAINTZEA.
1703	2019	22/10/2019	UDALTZAINGOA	TRANSPORTE ESKOLARRA EGITEKO AASL ENPRESARI ESKAERA ONARTZEA
1704	2019	22/10/2019	DIRU-BILKETA	3656 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA
1705	2019	22/10/2019	HIRIGINTZA	A.A. ETA I.K. ERRREKLAMAZIOA EZ ONARTZEA.



ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
				GORRITI PLAZA 1,
1706	2019	22/10/2019	EUSKERA	ERROTULUAK EUSKARATZEAGATIK DIRULAGUNTZA EMATEA.
1707	2019	22/10/2019	IDAZKARITZA	EUSKAL HERRIA PLAZAKO 1B ERAIKINEKO 408 APARTAMANTUAREN ERABILERA ZESIOA LAGATZEKO KONTRATUA ONARTZEA
1710	2019	22/10/2019	EUSKERA	HERRI URRATSI DIRULAGUNTZA EMATEA
1711	2019	22/10/2019	EUSKERA	KILOMETROAK-I DIRULAGUNTZA EMATEA
1712	2019	23/10/2019	HIRIGINTZA	AMARTOZ 9, 10 ETA LOKALETAKO JABEKIDEGOARI FATXADA ETA PASABIDEETAKO ARRISKUA KENTZEKO ERREKERIMENDUA
1713	2019	23/10/2019	EUSKERA	EUSKARA IKASTEN ARI DIREN TOLOSARREI DIRULAGUNTZAK EMATEA.
1714	2019	23/10/2019	PERTSONALA	IRAILEKO GIZARTE SEGURANTZAKO LIKIDAZIOEN KOSTUA ONARTZEA
1715	2019	23/10/2019	HIRIGINTZA	ARREMELE KALEA 1 ERAIKINEKO FATXADA ETA BALKOIAK KONPONTZEKO OBRA BAIMENA
1716	2019	23/10/2019	HIRIGINTZA	ZUBEROA AUZOA 2KO FATXADAN KONPONKETAK EGITEKO OBRA BAIMENA
1717	2019	23/10/2019	HIRIGINTZA	KALE NAGUSIA 30 BEHEKO "GARIA" OKINDEGI-LANTEGI JARDUERARI DAGOKION IREKITZEKO BAIMENAREN LIKIDAZIOA
1718	2019	24/10/2019	HIRIGINTZA	BEDAIOKO ARTUBI ELKARTEARI BAIMENA EMATEA AZOKA EGITEKO ETA MATERIALA ERABILTZEKO
1719	2019	24/10/2019	INFORMATIKA	INFORMATIKA KUDEAKETAN LAGUNTZA EMATEKO BEHIN-BEHINEKO KONTRATU TXIKIA ESLEITZEA
1720	2019	24/10/2019	FESTAK	2019KO URRIAREN 31TIK AZAROAREN 3RA TOLOSAKO ABESBATZA LEHIAKETA ANTOLATZEKO BAIMENA EMATEA.
1721	2019	24/10/2019	OBRAK	2019 URTEKO ASFALTATZE PLANAREN PROIEKTUA ONARTZEA.
1722	2019	24/10/2019	KONTUHARTZAILITZA	3032410P ETA 100126X ZENBAKI FINKOA DUTEN ETXEBIZITZA HUTSEI ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN ERREKAGUA EZ APLIKATZEA
1723	2019	24/10/2019	PERTSONALA	ERRENTA TEKNIKARIAREN HAUTAKETA: EPAIMAHAIAREN IZENDAPEN, ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BEHINEKO ZERRENDA ETA AZTERKETA DATAK FINKATU.



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	AÑO	EGUNA	DEPARTAMENTUA	OHARRA
1724	2019	24/10/2019	ALKATETZA	ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIAREN HAUTAKETA: EPAIMAHAIAREN IZENDAPEN, ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BEHINEKO ZERRENDA ETA AZTERKETA DATAK FINKATU.
1725	2019	24/10/2019	HIRIGINTZA	ZERKAUSIA 2-1.EZKERRA ETXEBIZITZA ERABERRITZEKO OBRA BAIMENA
1726	2019	24/10/2019	IDAZKARITZA	BAIMENA EMATEA UZTURRE 5-7C ETXEBIZITZA TASATUA ETA BERE ERANSKINAK SALTZEKO
1727	2019	24/10/2019	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO 10(-1) APARKALEKUAREN ERABILERA LAGATZEA.
1728	2019	24/10/2019	IDAZKARITZA	PLAZA BERRIKO GARAJEEN KOMUNITATE GASTUAK ORDAINITZEA
1729	2019	24/10/2019	HIRIGINTZA	JARDUERA LIZENTZIA EMATEA USABAL 302
1730	2019	24/10/2019	IDAZKARITZA	TOLOSAREN SUSTAPEN ETA PROMOZIO MARKETIN ZERBITZU KONTRATUA ARAUTZEN DUTEN ADMINISTRAZIO PLEGUEN ALDAKETA.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:55ean.

ALKATEA

JARDUNEKO DAZKARIA